



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

74. INFORMAZIO BULETINA

> 2013ko Urtarrila



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Urtarrilla

NABARMENDU BEHARREKOA

> Kohesio-politikaren egungo egoera: legegintza arloko negoziazioak

Batzordearen Eskualdeko eta Hiriko Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren aurkezpena Bruselako eskualde-bulegoetako ordezkarien aurrean.

Johannes Hahn Eskualde Politikaren Europako komisarioak etorkizuneko (2014-2020) kohesio-politikari buruzko aurrekontuaren eta lege-negoziazioen egoera aurkeztu zuen; baita programa berrien prestaketa ere.

Informazio gehiago (bideo):

<http://scic.ec.europa.eu/streaming/index.php?es=2&sessionno=9308b0d6e5898366a4a986bc33f3d3e7>

> Urrats berria finantza-transakzioei buruzko tasa bat onartzeko bidean

Europako Batzardeak Batasuneko herrialdeetan egiten diren finantza-transakzioetarako tasa bat abian jartzea onartu du. Ekonomia eta Finantza Kontseiluak (ECOFIN) onartu egin du Europako Batzardeak tasa hori ezartzeko egindako proposamena. Hortaz, % 0,1eko zerga ezarriko zaie finantza-transakzioei oro har eta, horrez gain, % 0,01ekoa eratorrien merkatuetan egindakoei.

Tasa honen bidez, urtean 37.000 milioi euro biltzea espero da.

Europako Batzardeak sustatutako lehen garapen-fasean eta estatu-kideen arteko elkarlanaren bidez, hamaika herrialdek tasa ezartzeko prozesuan urratsak emango dituzte. Finantza-transakzioei buruzko tasa ezartzeko urratsak emateko lankidetzari ekingo diote hamaika herrialde hauek: Austria, Alemania, Belgika, Espainia, Estonia, Eslovenia, Eslovakia, Frantzia, Grezia, Italia eta Portugal.

Informazio gehiago:

http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/en/ecofin/134949.pdf



> Europar Batasunean Irlandak duen Presidentetzaren lehentasunak

“Egonkortasunaren, enpleguaren eta hazkundearen alde” izenburupean, Europar Batasuneko Kontseiluan Irlandak duen Presidentetzak 2013ko lehen erdirako programa eta ekintzetarako lehentasunak aurkeztu ditu.

Irlandako gobernuak Europako Presidentetzarako dituen hiru oinarriak hauek dira:

- Pertsonak lehenetsiko dituen suspertze iraunkorra
- Europan enplegua eta baliabideak sustatuko dituen hazkundearen aldeko inbertsioak
- Europa eta mundua: konpromiso baliagarria gure kideekin

Europako Presidentetzari hasiera emateko hitzaldian, Enda Kenny lehen ministro irlandarrak Hainbat Urterako Finantza Esparruari buruzko akordio bat lortzeko beharra nabarmendu du, horren bidez, Europar Batasuna 2014-2020 aldian finantzatzeko proposamenak egiteko. Era berean, iragarri du lehentasuna emango diola 2014-2020 aldirako kohesio-politikarako lege multzoari buruzko akordioari. Europako gazteen langabeziaren aurkako planak irmo sustatuko dituela ere iragarri du.

Informazio gehiago:

http://eu2013.ie/media/eupresidency/content/documents/EU-Pres_Prog_A4.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> Espezializazio burutsua - Etorkizuneko hazkunde ekonomikoaren motorra Europako eskualdeetan

Panorama aldizkariaren neguko edizioak espezializazio burutsuaren estrategiak jorratu ditu Europako eskualdeetan hazkunde ekonomikoaren motorra diren aldetik.

Era berean, Eurobarometroak egindako azken inkesta «A view from the regions» (Eskualdeen iritzia) aztertu dute. Herritarrek bizi-kalitateari eta etorkizunerako itxaropenei buruz dituzten iritzia erakusten ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag44/mag44_es.pdf

> *RegioStars* sariak eskualde berritzaileenei

Europako Batzordeko Eskualde Politikaren Zuzendaritza Nagusiak zabaldu du *RegioStars 2014* sarietarako proposamenak aurkezteko epea. Eskualde berritzaileenak saritzen dituzte.

Sariketa honekin, Europako Batzordeak Europar Batasuneko kohesio-politikaren bidez finantzatu diren eta Europako eskualdeek sustatu dituzten jardunbide egoki berritzaileak identifikatu, hedatu eta komunikatu egin nahi ditu.

Hona hemen aurtengo sarien edizio bost kategoriak:

- hazkunde burutsua: berrikuntza enpresa txiki eta ertainetan
- hazkunde iraunkorra: hazkunde ekologikoa eta enplegua bioekonomiaren bidez
- hazkunde integratzailea: gazteentzako enplegua sortzea
- citystar: hiriko garraio publiko iraunkorrean inbertsioak egiteko proiektuak
- inbertsio-proiektu handiak: energiaren eraginkortasuna eta karbono gutxi isurtzen duten ekonomiak

Hautagaitzak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 19an amaituko da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperate/regions_for_economic_change/regiostars_en.cfm



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> “Globalizazioaren arorako industria-politika” ekimenari buruzko inkesta

Europako Batzordearen “Globalizazioaren arorako industria-politika” ekimen entzutetsuak, Europa 2020 Estrategiaren baitakoa denak, industria-oinarri egonkor bat sortuta hazkundea sustatzearen alde egiten du. Batez ere enpresa txikien eta ertainen partaidetza handia baliatzen du horretarako.

Hortaz, eta datorren urtean, 2014an, Europa 2020 Estrategiaren tarteko azterketa prestatzeko aurreko urrats gisa, Eskualdeen Batzordeak ekimenari buruzko inkesta bat jarri du abian.

Estatu-kide guztietako tokiko eta eskualdeetako administrazioei zuzenduta dago inkesta eta Eskualdeen Batzordeak partaideak industria-politikako neurriak aplikatzeko prozesuari buruzko ikuspuntuak adieraztera gonbidatu ditu inkesta honen bidez, horrela, ekimena ebaluatzen lagun dezaten. Inkestan parte hartzeko epea martxoaren 1ean amaituko da.

Inkestaren emaitzak Eskualdeen Batzordeak apirilaren 10ean Bruselan egingo duen biltzar batean eztabaidatuko dira.

Informazio gehiago:

<http://portal.cor.europa.eu/europe2020/MonitoringFlagships/Pages/An-Industrial-Policy-for-the-Globalisation-Era.aspx>



> Enpresa txiki eta ertainei bankuen finantzaketa eskuragarriago izatea bermatuko dien legeria eskatu du Europako Parlamentuak

Enpresa txiki eta ertainei bankuen maileguak eskuragarriago izatea bermatuko dien legeri berria eskatzeko txostena onartu du Europako Parlamentuak.

Parlamentuak Europako Batzordeari eskatu dio aztertu eta ebalua ditzala enpresa txiki eta ertainak finantzatzeari dagozkion arau guztiak, oztopoak eta kontraesanak desagerrarazteko helburuarekin. Gainera, enpresa txikiek beste enpresa batzuen berankortasuna jasateko arrisku handiagoa dutenez, Parlamentuak estatu-kideei eskatu die aplika dezatela enpresen arteko ordainketak arautzen dituen Europako araudia.

Txostenak nabarmentzen du kontratazio publikoari eta emakidei buruzko arauak ez lioketela trabarik egin behar enpresa txikiek, ertainek eta mikroenpresek kontratazio publikoko merkatuetara duten sarbideari. Eta gogorarazten du beste ikuspegi bat beharrezkoa dela enpresa txiki eta ertainek herrialde bakoitzaren ezaugarriak aintzat izango dituen finantzaketara duten sarbidea hobetzeko.

Parlamentuak, beste neurri batzuen artean, enpresa txiki eta ertainei zuzendutako programa bat abiaraztea proposatu du enpresa horiek oinarriko finantza-jakintzak eskura ditzaten, eta maileguak eskatzeko eta eskuratzeko aukera gehiago izan ditzaten.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=REPORT&reference=A7-2013-0001&language=ES#title1>

> Europako Batzordea aditu bila dabil *Horizon 2020* programaren barruan proiektu berriak zehazteko

Europako Batzordeak arlo guztietako adituei zuzendutako deialdi bat zabaldu du *Horizon 2020*ren esparruan garatzeko proiektu-proposamenen deialdiak prestatzeko aholkularitza emango duten aholkulari taldeak osatzeko asmoz. Europar Batasunak ikerketarako eta berrikuntzarako duen finantzaketa-programa da *Horizon 2020*.

Horizon 2020 programak 2014tik 2020ra izango du garapen-aldia eta 80.000 milioi euroko aurrekontua du. Horrez gain, finantzaketa-tresna bakarrean biltzen ditu ikerketara eta berrikuntzara bideratutako ekintza guztiak.

Hautagaitzak martxoak 6 baino lehen aurkeztu beharko dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/horizon2020/index_en.cfm?pg=h2020-experts



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> 2011n Europar Batasunean zergetatik jasotako diru-sarrerak

2011n, BPGren % 40 handitu ziren zerga bidezko diru-sarrerak EB-27an eta BPGren % 41 eurogunean. Zerga bidezko diru-sarreraren igoera hori zuzeneko eta zeharkako zergetatik dator eta gizarte-kotizazioek, berriz, egonkor jarraitzen dute.

Horiez gain, EB-27ko diru-sarrera fiskalak aurreko urteetako antzeko mailan daude sarrera-iturriak kontuan hartzen baditugu: ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zergak (BPGren % 34), errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zerga arruntak (% 31,5) eta gizarte-kotizazioak (% 33).

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-12-055/EN/KS-SF-12-055-EN.PDF

> Europa zifratu, 2012

Eurostatek egindako urtekari honetan, Europari buruzko askotariko datu estatistikoak daude, taula estatistiko, grafiko eta mapetan adierazita.

Datu gehienak Europar Batasuneko eta kide diren estatuetak 2000-2010 aldikoak dira eta beste adierazle batzuk, berriz, beste herrialde batzuetara zuzenduta daude; hala nola Europar Batasuneko kide izateko hautagai direnei, Japoniari eta Estatu Batuei.

Urtekaria gaika egituratuta dago. Hona hemen gaiak: ekonomia eta finantzak, populazioa, osasuna, hezkuntza, lan-merkatua, bizi-baldintzak eta babes soziala, industria, merkataritza eta zerbitzuak, nekazaritza eta arrantza, nazioarteko merkataritza, garraioa, ingurumena, energia, zientzia eta teknologia.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-CD-12-001/EN/KS-CD-12-001-EN.PDF



> Berrikuntzari buruzko inkesta

Eurostatek berrikuntzari buruz egin duen Komunitateko inkestaren arabera, 10 langiletik gora dituzten Europar Batasuneko enpresen % 53k produktuen eta prozesuen arloko berrikuntzaren bat egin du 2008tik 2010era.

Hala ere, enpresa berritzaileen proportzioa asko aldatzen da herrialdearen arabera. Alemania, Luxenburgo eta Belgika herrialdeen sailkapenaren goiko postuetan daude % 79, % 68 eta % 61eko ratioekin eta Europar Batasuneko hamahiru herrialde, berriz, ez dira Europako batez bestekora iristen.

Berrikuntzari buruzko Komunitateko inkestaren helburua estatu-kideetako enpresek berrikuntzan egiten dituzten jarduerak aztertzea da. Inkestak produktuak eta prozesuak berritzeari buruzko informazioa biltzen du; baita antolakuntzako eta merkaturatzeko berrikuntzei buruzko informazioa, eta 2008-2010eko beste aldagai garrantzitsu batzuk ere.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/9-11012013-AP/EN/9-11012013-AP-EN.PDF